AIZTONDO MANKOMUNITATEKO ADINEKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO ZAINTZA PROGRAMA GARATZEKO GIZARTE LANGILE BAT ALDI BATERAKO IZAERAZ ETA LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ IZENDATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ARAUTZAILEAK

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA EL NOMBRAMIENTO, CON CARÁCTER TEMPORAL Y MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO, DE UN TRABAJADOR SOCIAL PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE CUIDADOS DE PERSONAS MAYORES DE LA MANCOMUNIDAD DE AIZTONDO

1 - DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da bitarteko langile bat izendatzea, funtzionario interino izaeraz, Aiztondo mankomunitateko adineko pertsonei zuzendutako zaintza programa garatzeko.

Postuak ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Postua: Gizarte langilea.
- Taldea: A2
- Soldata maila: 21
- Lanaldia; %100
- Iraupena: 3 urteko programa.

1 - OBJETO DE LA CONVOCATORIA

El objeto de esta convocatoria es la contratación de un personal interino para la implementación temporal del programa de cuidados de personas mayores de la Mancomunidad de Aiztondo.

El puesto tendrá las siguientes características:

- Puesto: Trabajador social.
- Grupo: A2
- Nivel salarial: 21
- Jornada: 100%
- Duración: Programa de 3 años.

2 – LANPOSTUAREN FUNTZIOAK

- Zainketetan mendeko norbanakoaren autodeterminazio eta bizi-kalitatea sustatzeko, mendeko pertsonari zein zaintzaileari, orientazioa eta laguntza ematera zuzendutako prozesuan burutu beharreko funtzio zehatzak, honako hauek izango dira: - Onuradunak hautematea eta identifikatzea.
  - Hasierako balorazioa egitea.
  - Informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea.
  - Baloratutako erabiltzaileei edo familiei zuzendutako baliabideak kudeatzea.
  - Etxez etxeko bisitak egitea.
  - Akonpainamendua egitea edota laguntza soziala ematea.
- Programari lotutako jardueren hasieran, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Koordinazio-lanak egitea.

2 – FUNCIONES DEL PUESTO

- Las funciones concretas a realizar en el proceso de promoción de la autodeterminación y calidad de vida del individuo dependiente en los cuidados, tanto a la persona dependiente como a la cuidadora, de orientación y acompañamiento, serán: - La detección e identificación de las personas beneficiarias.
  - Hacer la valoración inicial.
  - Dar Información, orientación y asesoramiento.
  - Gestión de los recursos dirigidos a las personas usuarias o familias valoradas.
  - Hacer las visitas domiciliarias.
  - Dar acompañamiento y/o ayuda social.
- Participar en el inicio, seguimiento y evaluación de las actividades vinculadas al programa.
- Realizar labores de coordinación.

- Funtzio guztiak erreferentziazko gizarte langilearekin koordinazioan burutu beharko dira.

- Todas las funciones se llevarán a cabo en coordinación con la trabajadora social de referencia.

3 – EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahai kalifikatzailea pertsona hauek osatuko dute:

a) Lehendakaria: Aiztondo Mankomunitateko Idazkaria.
b) Idazkaria: Aiztondo mankomunitateko Gizarte langilea.
c) Bokala: Aiztondo Mankomunitateko Gizarte langilea.
d) Bokala: Aiztondo Mankomunitateko Administraria.
e) Bolaka: Aiztondo Mankomunitateko Lehendakaria.

3 – TRIBUNAL CALIFICADOR

El tribunal calificador estará compuesto por las siguientes personas:

a) Presidente: Secretario de la Mancomunidad de Aiztondo.
b) Secretario: Trabajadora social de la Mancomunidad de Aiztondo.
c) Vocal: Trabajadora social de la Mancomunidad de Aiztondo.
d) Vocal: Administrativo de la Mancomunidad de Aiztondo.
e) Vocal: Presidente de la Mancomunidad de Aiztondo.

4 – BETEKIZUNAK

a) 18 urte beteta izatea.
b) Gizarte Langintzako gradua eta Gizarte hezkuntzako gradua izatea (biak).
c) 3. hizkuntza eskakizuna / EGA.
d) B Gidabaimena izatea eta lanerako kotxea izatea.

4 – REQUISITOS

a) Tener cumplidos los 18 años.
b) Grado de Trabajo social y Grado de Educación social (Ambos).
c) Perfil Lingüistico 3 / EGA.
d) Permiso de conducir B y coche para trabajar.

5 – HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa faseak bi zati izango ditu, lehiaketaldia eta elkarrizketa.

Elkarrizketa fasea 3 HE dutenei egingo zaie bakarrik, lehiaketaldian puntuazio altuena duten 6 hautagaiei. Ez badago 3 HE aurkeztu duen hautagairik, lehiaketaldian lortu duten puntuazioaren hurrenkeran, lehenengo 6 pertsonei egingo zaie elkarrizketa.

5.1 Lehiaketaldia (60 puntu)

Baloratu beharreko merezimenduak hauek izango dira: alde batetik, esperientzia profesionala eta, bestetik, lanpostuaren funtzioekin zerikusia duten ikastaroak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den dataren mugarekin baloratuko dira merezimenduak.

5 – PROCESO DE SELECCIÓN

El proceso de selección consistirá en dos partes, la fase de concurso y una entrevista.

La fase de entrevista se realizará únicamente a personas con PL3, a los 6 que mejor puntuación obtengan en la fase de concurso. En el caso de que no haya candidatos con PL3, por orden de puntuación obtenida en la fase de concurso, se entrevistará a las 6 primeras personas.

5.1 Concurso (60 puntos)

Los méritos a valorarserán los siguientes: Por un lado, la experiencia profesional y, por otro lado, cursos relacionados con las funciones del puesto.

Los méritos se valorarán con el límite de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

1. Esperientzia profesionala (40 puntu)

Lanpostuaren funtzioekin zuzenean zerikusia duten egindako eta ordaindutako lanak soilik baloratuko dira, bai izaera publikoa duten erakundetan bai izaera pribatua duten erakundetan, beti ere, egiaztagiri bidez egiaztatuz gero eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik atzera azken hamar urteetan egindako lanak badira.

Zerbitzua denbora partzialean edo lan jardunaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi edo jardunaldi osotzat joko dira.

Esperientzia profesionala ondorengo moduan baloratuko da:

1.1. Esperientzia sektore publikoan edota administrazio publikoan: Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,75 puntu.

1.2. Esperientzia sektore pribatuan: Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,35 puntu.

Esperientzia profesionalaren zenbaketa egiteko lanean emandako aldietako egunak batuko dira, eta behin batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabetetzat.

Esperientzia, ondoren adierazi bezala justifikatuko da:

- Sektore publikoan egindakoa: jatorrizko ziurtagiria edo ziurtagiri konpultsatua, sektore publikoko erakundeak egina, burututako lanpostua, haren egitekoak eta lan- edo funtzionario-harremanaren iraupena jasotzen dituena.
- Enpresa pribatuan egindakoa, bi modu hauetakobaten bidez:

  a) Enpresa pribatuaren jatorrizko ziurtagiria, zera adieraziz:
  - Lanpostu mota, zereginak edo egitekoak.
  - Lan-harremanaren iraupena.

  b) Lan bizitzaren txosten eguneratua Gizarte Segurantzako diruzaintza nagusiak emana eta lan kontratua, lanpostuaren izena eta zereginak zehaztuz.

1. Experiencia profesional (40 puntos)

Únicamente se valorarán los trabajos realizados y remunerados directamente relacionados con las funciones del puesto, tanto en entidades de carácter público como en entidades de carácter privado, siempre que se acrediten mediante certificación y que correspondan a trabajos de los últimos diez años.

Todos los periodos en los que el servicio se haya prestado a tiempo parcial o en jornada laboral reducida se considerarán como jornada completa.

La experiencia profesional se valorará de la siguiente manera:

1.1. Experiencia en el sector público o la administración pública: 0,75 puntos por mes trabajado.

1.2. Experiencia en el sector privado: 0,35 puntos por mes trabajado.

Se sumarán los días de los períodos trabajados para el cómputo de la experiencia profesional, excluyéndose, una vez realizada la suma, las fracciones inferiores a un mes. A estos efectos, se entenderá por mes la suma de 30 días naturales.

La experiencia se justificará de la siguiente manera:

- En el sector público: certificado original o compulsado, expedido por la entidad del sector público, en el que conste el puesto de trabajo desempeñado, sus funciones y la duración de la relación laboral o funcionarial.
- La experiencia en la empresa privada, de las siguientes maneras:

  a) Certificado original de empresa privada indicando:
  - Tipo de puesto, tareas realizadas o funciones.
  - Duración de la relación laboral.

  b) Informe de vida laboral actualizado emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social y contrato de trabajo con indicación del puesto de trabajo y funciones.

2. Ikastaroak eta formazioa (30 puntu)

2.1. Jarraian ezarritako baremoaren arabera baloratuko dira administrazio publikoek antolatu edo homologatutako 25 ordu edo gorako prestakuntza jarduera edo ikastaroak. Atal honetan, gehienez ere, 20 puntu lortu ahal izango dira.

Ikastaroak ondorengo moduan baloratuko dira: egindako ordu bakoitzeko 0,1 puntu, betiere, epaimahaiaren iritziz lanpostuaren funtzioekin zuzeneko lotura badute eta izangaien maila profesionala hobetzea ekarri badute eta baldin eta diploma edo bertaratze-ziurtagiria edo aprobetxamendu-ziurtagiria eman bada. Dagokion ziurtagiri konpultsatuan, ikastaroen iraupena eta data agertzen ez badira, ezin izango dira baloratu.

Ikastaroen gehieneko baliozkotasun-epea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren aurre-aurreko 15 urtekoa izango da.

Formazio Arautuari dagokionez, ondorengo moduan baloratuko da:
- Formazio Profesionaleko tituluak (FP) 6 punturekin baloratuko dira, beti ere lanpostuaren funtzioekin harreman zuzena dutela frogatu badaiteke eta epaimahai kalifikatzaileak hala ulertzen badu.
- Unibertsitateko tituluak 20 punturekin baloratuko dira, betiere lanaren funtzioekin harremana badute eta epaimahai kalifikatzaileak hala ulertzen baditu.

2.2. Hizkuntzen ezagutza egiaztatua (gehienez 10 puntu).
Ingelesa, Frantsesa edo Arabiera jakitea baloratuko da, baldin eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko (EEMB) mailei edo aitortutako baliokideei dagozkien titulu edo ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatzen bada.

Egiaztatutako hizkuntza bakoitzeko emango da puntuazioa, eskala honen arabera:
- A1, A2 edo B1 maila: 5 puntu.
- B2 maila ala goragokoak: 10 puntu.

Hizkuntza bat baino gehiago egiaztatuz gero, puntuazioak metagarriak izango dira, gehienez ere 10 puntura iritsi arte. Hizkuntza bakoitzerako,

2. Cursos y formación (30 puntos)

2.1. Las actividades o cursos formativos de duración igual o superior a 25 horas organizados u homologados por las Administraciones Públicas se valorarán de acuerdo con el siguiente baremo. En este apartado como máximo se obtendrán 20 puntos.

Los cursos se valorarán a razón de 0,1 puntos por hora realizada, siempre que a juicio del tribunal las actividades estén directamente relacionadas con las funciones del puesto y hayan supuesto la mejora del nivel profesional de los aspirantes y se haya expedido el diploma o certificado de asistencia o certificado de aprovechamiento. Si en la certificación compulsada correspondiente no consta la duración y fecha de los cursos, no podrán ser valorados.

El plazo máximo de validez de los cursos será de 15 años inmediatamente anteriores a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

En cuanto a la Formación Reglada, se valorará de la siguiente manera:
- Los títulos de Formación Profesional (FP) se valorarán con 6 puntos, siempre que se pueda demostrar que guardan relación directa con las funciones del puesto y así lo entienda el Tribunal.
- Los títulos universitarios se valorarán con 20 puntos, siempre que estén relacionados con las funciones del trabajo, segun criterio del tribunal calificador.

2.2. Conocimiento acreditado de idiomas (máximo 10 puntos).
Se valorará el conocimiento de los idiomas Inglés, Francés o Árabe, siempre que se acredite mediante títulos o certificados oficiales correspondientes a los niveles del Marco Común Europeo de Referencia de las Lenguas (MCER) o equivalentes reconocidos.

La puntuación se otorgará por cada idioma acreditado, conforme a la siguiente escala:
- Nivel A1, A2 o B1: 5 puntos.
- Nivel B2 o superior: 10 puntos.

En caso de acreditarse varios idiomas, las puntuaciones serán acumulables hasta alcanzar un máximo de 10 puntos. Para cada idioma, únicamente

egiaztatutako mailarik altuena bakarrik baloratuko da, hizkuntza bereko maila desberdinei dagozkien puntuazioak metatu gabe.

5.2 Elkarrizketa (gehienez 30 puntu)
Bigarren proba elkarrizketa izango da.
Bigarren eta azken fase honetara, gehienez, puntuazio handiena duten sei hautagai pasako dira, non euskarako 3 HE duten hautagaiak lehenetsiko diren.
Ez badago 3 HE aurkeztu duen hautagairik, lehiaketaldian lortu duten puntuazioaren hurrenkeran, lehenengo sei pertsonei egingo zaie elkarrizketa.
Elkarrizketa nahitaezkoa izango da aipatzen diren hautagaientzat eta ez baztertzailea. Hau da, nahitaezkoa izango da elkarrizketa aurrez aurre egitea, baina frogaren emaitza ez da baztertzailea izango.

Elkarrizketak 15 minutu inguru iraungo du. Izangaien komunikaziorako gaitasuna, lan-taldean egiteko gaitasuna, inguruaren ezagutza, udal, mankomunitate zein administrazio publikoaren ezagutza, lanerako motibazio eta prestutasuna zein lan esperientzia baloratuko dira.

Elkarrizketan zehar, deialdi honen objektu den lan arloko ohiko kasuistika bat planteatuko zaio elkarrizketatuari, berau nola izapidetuko lukeen ebatzi beharko duelarik epaimahaiaren aurrean.

Elkarrizketaren lekua eta data ADUNAko web orrian argitaratuko dira izangai bakoitzari dagokion ordua zehaztuz. Parte-hartzaile bakoitzaren betebeharra izango da aipatutako webguneko informazioa eskuratzea, elkarrizketen datak ezagutzeko.

6 – PROZESUAN IZENA EMATEA ETA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA
Izen ematea, nolanahi ere, LANBIDEren bidez egin beharko da, deialdia argitaratzen den egunetik hasita, 15 egun naturaleko epean.

se valorará el nivel más alto acreditado, sin acumular puntuaciones correspondientes a distintos niveles del mismo idioma.

5.2 Entrevista (30 puntos)
La segunda prueba será la entrevista.
Pasarán a esta segunda y última fase, como máximo, los seis aspirantes con mayor puntuación, donde prevalecerán los candidatos de PL 3 de euskera.
En el caso de que no haya candidatos con PL3, por orden de puntuación obtenida en la fase de concurso, se entrevistará a las seis primeras personas.
La entrevista será obligatoria para los candidatos que se citan y no excluyente. Es decir, será obligatorio realizar la entrevista de forma presencial, pero el resultado de la prueba no será excluyente.

La entrevista durará unos 15 minutos. Se valorará la capacidad comunicativa de los candidatos, la capacidad de trabajo en equipo, el conocimiento del entorno, el conocimiento de los ayuntamientos, mancomunidad o administración pública, la motivación y disposición para el trabajo y la experiencia laboral.

Durante la entrevista se planteará a la persona entrevistada una casuística laboral habitual sobre el objeto de esta convocatoria, debiendo resolverla ante el Tribunal sobre su tramitación.

El lugar y fecha de la entrevista se publicará en la página web del Ayuntamiento de ADUNA indicando la hora que corresponde a cada aspirante. Será obligación de cada participante el de acceder a la información de la página web indicada para conocer las fechas de las entrevistas.

6 – INSCRIBIRSE EN EL PROCESO Y APORTAR LA DOCUMENTACIÓN A VALORAR
La inscripción se efectuará, en todo caso, mediante LANBIDE y dentro de los 15 días naturales siguientes a la publicación de la convocatoria.

Alegatutako alderdiak egiaztatzeko agiriak LANBIDEn bertan edo Aiztondo Mankomunitateko Erregistro Orokorrean entregatu ahal izango dira, presentzialki zein telematikoki, izena emateak egiteko ezarri den data berberetan.

La presentación de la documentación acreditativa de los extremos alegados, se podrá efectuar tanto en LANBIDE, como en el Registro General de la Mancomunidad de Aiztondo, presencialmente o de forma telemática, en las mismas fechas establecidas para la inscripción.

7 – SAILKAPENA ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa merezimendu-lehiaketaren fasean eta elkarrizketaren balorazioan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da hurrenkera:

1. Merezimendu-lehiaketaren fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
2. Lan-esperientziagatik puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
3. Lan-esperientziaren 1.1. atalean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
4. Ikastaroetan eta prestakuntzan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
5. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez erabakiko da.

7 – CLASIFICACIÓN FINAL Y CRITERIOS DE DESEMPATE

La calificación final de cada aspirante vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de concurso de méritos y en la valoración de la entrevista.

En caso de empate, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de concurso de méritos.
2. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación por experiencia profesional.
3. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en el apartado 1.1. de la experiencia profesional.
4. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en Cursos y formación.
5. Si persiste el empate, se decidirá por sorteo.

Zizurkilen, 2026ko urriaren 29an,

LEHENDAKARIA
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez